

GARBIKETAN, MUGITZEN, EROSKETAK EGITEN... LAGUN DIEZAZUN NORBAIT KONTRATATZEKO LAGUNTZA PERTSONALAREN PRESTAZIO EKONOMIKOA (LPPE)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Laguntza ekonomikoak zuretzat edo zure zaintzaileentzat

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (LPPE) laguntza ekonomiko bat da, aldizkakoa, mendekotasuna duten pertsonen autonomia erraztuko duten laguntzaile pertsonalak kontratatzen laguntzeko, hezkuntzara eta/edo lanera sartu ahal izateko, komunitatean integratu eta parte hartu ahal izateko, eta eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan autonomia handiagoa lortzeko ([3.1.1 fitxa](#)).

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

3 urte edo gehiagoko **mendekotasuna duten pertsonak** (I., II. edo III. graduak).

I. gradua - Mendetasun arina

eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, gutxienez **egunean behin**, edo autonomia pertsonalerako aldizkako edo mugatutako laguntza behar duenean. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 25 puntutik 49 puntura.

II. gradua - Mendetasun larria

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, **egunean bizpahiru aldiz**, baina ez duenean zaintzaile baten etengabeko laguntza nahi edo ez duenean laguntza zabalik behar bere autonomia pertsonalerako. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 50 puntutik 74 puntura.

III. gradua - Mendetasun oso larria

Pertsonak laguntza behar duenean eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko **egunean hainbat aldiz**, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsoriala erabat galdua duenez, beste pertsona baten laguntza ezinbestekoa eta etengabea behar duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza orokorra behar duenean. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 75 puntutik 100 puntura.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Mendekotasuna duen pertsonaren aldetik:

- Mendekotasuna duen pertsona gisa baloratua izatea, edozein gradutan
- Prestazioa zein Lurralde historikotako Foru-aldundiari eskatzen zaion, hango udalerriren batean erroldatuta egotea.
- Espainiako nazionalitatea izatea edo legezko egoitza Espainiako Estatuan izatea (adingabeak izan ezik).
- Behar diren zerbitzuak zehazteko eta laguntzaile pertsonalari horiek nola gauzatu behar diren azaltzeko gaitasuna izatea. Salbuespena:
 - mendetasuna duen pertsonak 18 urte baino gutxiago baditu; kasu horretan, guraso-ahala edo tutoretza duenari eskatuko zaio gaitasun hori.
 - ez badu gaitasun intelektualik funtzio horiek autonomiaz egiteko, eta, kasu horretan, erabakiak hartzeko behar diren laguntzekin gauzatu ahal izango ditu.
- Hezkuntza- edo lan-jarduerak egiteko edo eguneroko jarduerak egiteko laguntzak eskatzea.

Laguntzaile pertsonalaren aldetik:

- Adinez nagusia izatea.
- Laguntza pertsonaleko zerbitzuak emateko behar den kualifikazioa egiaztatzea (ikusi [Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren zentro eta zerbitzuetako profesionalen gaikuntza](#)-ri buruzko informazioa).
- Zerbitzuak zerbitzu horiek ematen dituen enpresa behar bezala homologatu eta baimendu batekin egindako kontratuaren bidez ematea zerbitzua, edo zuzenean lan-kontratuaren edo zerbitzuak emateko kontratuaren bidez ematea.
- Mendekotasuna duen pertsonari arreta emateko zerbitzua emateko kontratu bat dagoela egiaztatzea.
- Estatuan legezko egoitza izatea.
- Zaintzaile profesionalentzat Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea.
- Onuradunaren ezkontidea ez izatea edo hirugarren ahaidetasun-mailara arteko odolkidetasun, ahaidetasun edo adopzio bidezko ahaidea ez izatea, eta familia-harreraren

ondoriozko loturarik ez izatea.

Zenbatekoa da?

Gehieneko zenbatekoa urtero finkatzen dute Foru Aldundiek. Urtean 12 ordainsari ordaintzen dituzte, eta pertsona bakoitzarentzat kalkulatzen da zenbatekoa, hainbat faktore kontuan hartuta:

- Mendetasun-gradua eta -puntuak.
- Eskatzen duen pertsonaren gaitasun ekonomikoa.
- Beste gizarte-zerbitzu batzuk erabiltzen diren ala ez.
- Antzeko beste prestazio edo osagarri batzuk kobratzea
- Laguntza pertsonala kontratatzearen kostua, aipatutako gehienezko zenbatekoaren mugapean

Bateragarria al da beste laguntza batzuekin?

LPPE **ez da bateragarria** SAAD Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren beste prestazio ekonomiko batzuekin (Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa izan ezik, egoitza plaza baten gastuak ordaintzeko erabiltzen ez denean). Baina **bateragarria da** mendekotasunari arreta emateko zerbitzu guztiekin, egoitza-zentroetako edo ostatu-zerbitzuetako egonaldi iraunkorrekin izan ezik. Egoitza-zerbitzu batean bi hilabete baino gehiagoko aldi baterako egonaldia egiten denean, laguntza aldi baterako etenda geratuko da egonaldia amaitu arte.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) **foru-aldundien ardura** da.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Prestazio honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa Araban](#)
- [Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa Bizkaian](#)
- [Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)